

## **MARTXOAK 8**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Legorretako Udalaren adierazpena:

Duela urtebete, azken urteetako mobilizazioak eta greba feministak aipatzen ari ginen, aldarri argi batekin: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea.

Egun, herritarron bizimodua COVID-19aren inguruan eratu da; krisi multidimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoarekin eta zaintzen krisiekin.

Hala ere, gure aldarria ez da aldatu; izatez, sekula baino indar handiagoarekin ekin behar diogu. Hilabete hauetan izandako genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu dute, edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; indarkeria matxista areagotu egin da, eta hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak, aldiz, mugatu; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola osasun mentalarekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte... azken batean, eta batez ere kolektibo zaurgarrienetako emakumeei dagokienez, pobretu egin dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Premiazkoak dira krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak, eta, herritarrengandik gertuen gauden erakundea izaki, daukagun erantzukizun publikoa kontuan izanda, guri dagokigu aurre egiteko neurriak hartzea.

Horregatik, Legorretako Udalak honako hau erabaki du:

1. COVID-19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea. Ikuspegi feminista eta tokiko eragile sozialen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.
2. Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehaztuz eta herritarren parte-hartzea bermatuz, ikuspegi feminista eta ahalduztze-ikuspegitik.
3. Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduztze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea eta parte hartzeko bideak irekitzea.
4. Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduztze-premisetatik.
5. Tokiko zaintza sare komunitarioei babesa eta baliabideak ematea.
6. Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea eta zaintza-ereduen inguruko eztabaida-guneak irekitzea, erantzukidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileek bezalako errealitateak ikusaraziz.